

## **MANUSCRITO DE LAZARRAGA**

**Autor:** Juan Pérez de Lazarraga. Noble Alavés que se cree nació en 1550 y murió en 1605.

Hallado en la tienda de un librero anticuario de Madrid.

**Contenido:** Escrito entre 1564-1567. Está dividido en dos partes: una narración de tipo pastoril, y una colección de poemas.

Adquirido por la Diputación Foral de Guipúzcoa por once millones de las antiguas pesetas.

Manuscrito en 4º, de 51 folios (102 páginas), de los que los 4 iniciales están parcialmente mutilados. Borrador o ejemplar de trabajo de una única mano.

Se trata de una colección de versos, cantares y lances de amor escritos en euskera, de mano de Juan Pérez de Lazarraga, Señor de la Torre de Larrea (cr. 1550 – 12.04.1605), acompañados de un largo relato mitológico al gusto de la época.

Escrito entre los años 1564 y 1567, según se desprende del análisis de varios párrafos del propio texto y atribuible, con toda certeza, al citado Lazarraga.

El autor es el mayorazgo de una de las múltiples ramas del linaje de los Lazarraga, que, procedente de Oñate, se instala a finales del siglo XV en diferentes Palacios y Torres de la llanada alavesa.

Hasta la fecha, Juan Pérez de Lazarraga es conocido por una relación genealógica de su propio linaje, espléndido texto erudito de 1588-89, del que se conocen cinco copias.

## **Vida y familia** [[editar](#)]

Fue el mayorazgo de una de las múltiples ramas del linaje de los Lazarraga, que, procedente de Oñate, se instala a finales del siglo XV en diferentes palacios y torres de la llanada alavesa. Hasta la fecha, Juan Pérez de Lazarraga es conocido por una relación genealógica de su propio linaje, espléndido texto erudito de 1588–1589, del que se conocen cinco copias.

Poco se sabe sobre el señor de la Torre de Larrea. Su hermano y él estudiaron probablemente en la recién creada [Universidad de Oñate](#), para posteriormente y ya enviudado marchar a Toledo el hermano y luego a la Corte de Madrid. Volviendo a Juan, Pruden Gartzia defiende que pudo tener contacto con Garibay debido no solo a la cercanía, sino por el gusto de ambos por la historia y las crónicas, que el autor plasmaría en la Genealogía de su familia, por la que era conocido hasta el momento del descubrimiento del manuscrito.

## **Obra: el manuscrito de Lazarraga** [[editar](#)]

El manuscrito fue encontrado por [Borja Aginagalde](#) en 2004 y adquirido por la [Diputación Foral de Guipúzcoa](#) a un anticuario de [Madrid](#) por medio de [Irargi](#) (Centro de Patrimonio Documental de Euskadi).

Su aparición ha supuesto que muchas de las ideas concebidas hasta el momento sobre la historia de la literatura vasca hayan tenido que ser revisadas, entre ellas el aislamiento al que se decía que había estado sometida la literatura en euskera hasta entrada la Era Moderna.

El manuscrito fue escrito entre los años 1564 y 1567 y en un principio estuvo compuesto por 106 páginas, aunque solo se conservan 102 ya que faltan las hojas 1155, 1156, 1157 y 1158. De las hojas que se conservan dos tercios sería poesía y lo restante se enmarcaría en un género en expansión y que tuvo muchos imitadores en la época, la novela pastoril renacentista. Este género sería inaugurado por J. Sannazaro con *La Arcadia* y continuado por autores tan ilustres como [Jorge de Montemayor](#), [Garcilaso de la Vega](#) y otros tantos, entre los cuales estaría Juan Pérez de Lazarraga. Al igual que en el caso de Sannazaro la prosa y el verso se entremezclan

en la obra. Alejado de [Petrarca](#), sus descripciones y detalles, está más cerca; debido a su estilo cortesano lírico tradicional; de las canciones líricas del siglos XV. Más elegante que [Etxepare](#) pero sin cumplir con la exactitud que [Oihenart](#) pediría en el siglo XVII, utiliza formas conocidas del verso vasco.

Si hay que destacar algo es la utilización de la prosa, que se creía que no se desarrolló hasta la llegada de la ascética didáctica de la [Escuela de Sara](#) en el siglo XVII y la del desaparecido dialecto de Noreste de Araba, que [Koldo Mitxelena](#) defendió que quedaría probada. El euskera utilizado por Lazarraga es sin duda alguna un euskera arcaico, marcado por formas en subjuntivo ya perdidas, el caso *nondik* arcaico y las formas viejas en los verbos auxiliares.

## Primera aparición literaria de varios términos [\[editar\]](#)

- Primera alusión al término Euskal Herria, hasta por tres veces:[\[1\]](#) [\[2\]](#)

« ...beti çagie laudatu çegaiti doçun eusquel erria aynbat bentajaz dotadu. (f. 18) /  
*Siempre os maravillaréis de por qué se ha dotado a Euskal Herria de tantas ventajas* ] »

« ...çegayti eusquel errian dira ederr guztioc dotadu. (f. 18v) [ *De por qué se ha dotado a Euskal Herria de todas estas bellezas* ] »

« ...çeñetan ditut eçautu eusquel erriau oy nola eben erregue batec pobladu. (f. 18v) »

## Conclusiones del estudio del manuscrito [\[editar\]](#)

- Los antecedentes de la literatura en euskera tanto en prosa como en verso serían antiguos también en hegoalde.
- Pudiera ser que la literatura en euskera no fuera tan escasa ni tardía como se creía, aunque probablemente (al igual que en el caso de [Juan de Amendux](#)) no hubiera sido impresa, pues es de pensar que en aquella época también habría euskaldunes concienciados en utilizar su lengua materna a la hora de escribir (al igual que en las comunidades de hablantes de alrededor).
- Teniendo en cuenta el número de escribas y secretarios vascohablantes de las cortes de [Navarra](#), [Castilla](#) y [Francia](#), no parece que el número de alfabetizados fuera en relación menor comparándolo con los de las lenguas colindantes.
- El haber tenido que competir con las lenguas románicas que fueron herederas de la cultura latina nos habrían dado una imagen distorsionada.
- La literatura escrita en euskera no habría sido tan ajena a los movimientos literarios de Europa tal y como demostraría el uso del género creado por Sannazaro, la novela pastoril.
- Quedaría demostrada la existencia de un dialecto alavés durante la época renacentista, influenciado por el dialecto vizcaíno y el de la Navarra de la Ribera, y absorbido en siglos posteriores por estos.

**Joannes Leizarraga** ([Beskoitze, Lapurdi, 1506](#) - [Bastida, Nafarroa Beherea, 1601](#)) euskal artzain kalbinista eta idazlea izan zen, [Itun Berria](#) euskaratu zuen leheneta.

[Higanot](#) bihurtu aurretik, seguru asko apaiz katolikoa izan zen. [1567eko](#) apirilaren 15ean egin zen *artzain Pauen*, eta [Bastidako](#) herrira igorririk, hil zen arte han gelditu zen. [Joana III.a Albretekoa Nafarroako](#) erreginak, [kalbinismora](#) konbertitu zelarik, bere gortean Elizaren erreformaren aldeko pentsalariei babesia eman zien eta [protestantismoa](#) erresumako lurraldeetan barna hedatu nahi izan zuen. Ideia erreformazaleen arabera, testu sakratuak herri xehearen hizkuntzan jarri behar ziren. Hala bada, erreginak [euskarazko](#) eta [gaskoierazko](#) itzulpeneak egiteko bitartekoak eta dirulaguntzak eman zituen. [1563ko martxoaren 14an](#) egin zen [Biarnoko](#) protestanteen sinodoan (batzarra), Leizarraga izendatu zuten euskarazko itzulpena egin zezan. Eredu moduan, Leizarragak [vulgata](#) eta [frantsesezko](#) itzulpeneak erabili zituen. Lau laguntzaile izan zituela dirudi, bera taldearen zuzendari izanik: [Sanz Tartas](#) (batzuen ustez [Joan Tartas](#) idazlearen osaba-aitona izan zitekeena), [Piarres Landetxeberri](#) eta Tardetz zuberotarrak eta Joanes Etxeberri [lohitzundarra petit basque](#) goitizenarekin ezagutua zena. [Leizarragaren Biblia 1571ko](#) irailean inprimatu zen, [Arroxelan](#).

## Kritika

- *Itzultzailaren meritua* da, gehienbat, krtikoek Leizarragaren lanean azpimarratzen dutena. Ezagutzen ditugun bere garaiko idazle beharrak [Bernart Etxepare](#) eta [Joan Perez Lazarragakoa](#) dira. Beraz, ia eredurik gabe jardun beharrak egiten du handi haren itzulpen-lan erraldoia. Erabili zuen eredu berak asmatu zuen.
- *Menpeko proposizioak* erabili beharrak, hizkuntza erromanikoen erako prosara eraman zuen. Latinaren eragina duten egitura sintaktikoak dira horren lekuko. Dena den, esaldietan, perpaus luze eta laburren arteko jokoan eta orekan maisutasuna erakusten du.
- *Iparraldeko euskaldunentzat* idatzi zuela igartzen zaio. [Nafarroa Behereko](#) eta [Lapurdiko](#) euskaren ezaugarriak darabiltza, erreformak jomuga zituen euskaldunak horiek baitziren. Testametu Berriaren amaieran, zuberotarren lagungarri izateko hiztegi labur bat jartzeak, argiago uzten du zein eremutan jokatu nahi zuten, bai erreginak eta bai Leizarragak berak. Bere laguntzaileekin elkarlanean, [Ipar Euskal Herriko](#) euskaldunei zuzendutako [koiné](#) edo [euskaratu](#) bat osatu zuela dirudi, Lapurdiko [euskarakoostatarra](#) oinarri harturik. [Lapurdiko](#) herrialdea, [Nafarroako Erresumaren](#) zati ez bazen ere, [ekonomia](#) eta biztanleria aldetik [Nafarroa Beherea](#) baino esangura handiagokoa zen garai hartako [Euskal Herrian](#). Hortaz, [kulturaren](#) alorrean ere erreferentziazko gunea zen. Normala da beraz, Leizarragak bere hizkuntza ereduaren oinarri Lapurdiko euskarra hartzea. [Federiko Krutwig euskaltzainaren](#) iritziz, euskararen batasuna XVI. mendeaz geroztik lortua zen, eta batasun hori Leizarragak egin zuen.
- *Hizkuntza jasoaren alde* eta itzulpen ahalik eta zorrotzena egin nahian, latinetik hartutako hitz asko darabiltza, euskarazko ordainak baztertuz. Bide kultista da, beraz, aukeratzen duena. Esate baterako, *giza pescadore* idazten du, *giza arrantzale* beharrean.
- *Zahar-kutsua* dario Leizarragaren euskarari. Hitzetan berritzaile, baina soinuetan eta morfologian arkaiko; antzinako euskararen arrastoak ohiko dira XVI. mendeko eta aurreko idazleetan, Lazarragaren testuan ere ikusi dugunez. \*ezan eta \*edin errodun [perfektiboa zaharreko](#) formak darabiltza, [Joan Perez de Lazarragak](#) bezala: *ilki zedin eta erran ziezon, jeiki zen eta erran zion* esanahiarekin, adibidez. Gainera, euskal literaturan oso gutxitau agertzen diren NOR-NORI-NORK motako adizkiak ageri dira, non objektu zuzena ez den hirugarren pertsonakoa: *gommandatzen cerauzquiotet* (Nik zu haiei, egungo euskaran behintzat ezinezkoa dena). Adizki horien kasuan, zalantza dago Leizarragaren asmakuntza diren, ala benetan herriak erabiltzen zituen.

**Joanes Leizarraga** nació en 1527 en [Briscous \(Labort\)](#) y murió en 1601 en [La Bastide-Clairence](#). En 1560 se convirtió al protestantismo (al igual que la reina de Navarra, [Juana de Albret](#)) y se puso a las ordenes del [Sínodo de Pau](#) quien le encargó, para ayudar en la difusión de la reforma entre la población, la traducción de la [Biblia](#) al [euskeru](#). Las edición tenía tres libros:

- *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* (El Nuevo Testamento)<sup>[2]</sup>
- *Kalendrera*, calendario de festividades religiosas
- *ABC edo Kristinoen instrukzionea*, lecciones rudimentarias para aprender a leer y la doctrina.

*Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria* fue impreso por Pierre Hautin en [La Rochelle](#) el año 1571, ostenta en la portada las armas de Juana de Albret, [Juana III de Navarra](#), pero no declara quien es el traductor de la obra. Las otras dos obras también fueron publicadas en 1571 en [La Rochelle](#), fortaleza de los  [hugonotes](#), y junto a la Biblia incluyó algunos escritos sobre la vida diaria del cristiano. Los críticos destacan de él el mérito del traductor, ya que se supone que la lengua en la que escribió tenía una escasa tradición escrita, al menos en prosa. Se exigió a sí mismo ser lo mas fiel posible al texto original. El tener que traducir oraciones subordinadas le llevó a imitar la sintaxis de las lenguas románicas. Los investigadores aprecian las normas ortográficas aplicadas casi sin excepción en toda la obra y son muchos los ejemplos que demuestran el método de traducción sistemático y meticuloso que debió utilizar. Eso hace pensar que Leizarraga, ayudado por un equipo de colaboradores, creó prácticamente de la nada una versión estandarizada del idioma, para poder así traducir los textos religiosos tal y como exigían las ideas reformistas.

Se nota que escribió para vascohablantes del [País Vasco francés](#),<sup>[3]</sup> aunque tampoco queda claro el dialecto que utilizó, pues tomó del [labortano](#), [bajo navarro](#) y [suletino](#). Puede pensarse que decidió crear una [koiné](#) de los tres dialectos para poder llegar al público más amplio posible.<sup>[4]</sup> Algunos autores han llegado a pensar que él mismo hablaba esa mezcla de distintos dialectos, es por ello por lo que se han presentado las siguientes teorías:

- [Lafitte](#) se atiene a lo que el autor mismo dice en el prólogo, es decir, que utilizó su euskera natal, es decir el labortano de Labort.<sup>[5]</sup>
- Según el principio [Louis Lucien Bonaparte](#) los tres dialectos del País Vasco francés estuvieron en una época unidos, y Leizarraga habría escrito cuando aun esto era así. Esta teoría cuenta con un serio obstáculo, pues apenas un siglo después se escribiría en labortano, bajo navarro y suletino.<sup>[6]</sup>
- [Mathieu René Lafon](#) afirma que en aquella época muchos bajo navarros y suletinos viajaban al pueblo de Leizarraga, Briscous. Además, los padres y abuelos del escritor eran de la [Baja Navarra](#) y los ayudantes que le asignó la reina de Navarra eran suletinos. Así se explicaría que las tres formas estén presentes en sus textos.

Hay que tener en cuenta que la costa de Labort en aquella época era de gran importancia económica a nivel europeo, y aunque no pertenecía al Reino de Navarra, Leizarraga utilizó como base la flexión verbal de esta región.<sup>[7]</sup>

Debido al uso culto del lenguaje que exigía una traducción de esta índole y a la fidelidad meticulosa que se debía exigir al texto original, tuvo que tomar muchos préstamos del [latín](#) en detrimento de palabras de origen vascuence. Por ejemplo, tradujo *pescador de hombres* por *giza pescadore*, en vez del castizo *giza arrantzale*. Por un lado es innovador en el uso de léxico culto, pero por otro muy arcaizante en la morfología y la fonética. Al igual que en el caso de [Juan Pérez de Lazarraga](#) se pueden encontrar rastros lingüísticos anteriores al siglo XVI.

### Primera aparición literaria de varios términos [editar]

En su traducción del [Nuevo Testamento](#) al euskera en 1571 aparece el término adaptado al dialecto navarro-labortano "heuscal herria" y se hace referencia a lo dialectalizado que se encuentra el euskera.

...bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera-ere minçatzeko manerán cer differentiá eta diuersitatea den [ Cualquiera sabe que en Euskal Herria casi de una casa a otra lo diferente y diversa que es la forma de hablar ]

Esta sería la segunda aparición de este termino tras la encontrada en la obra de Juan Pérez de Lazarraga datada entre 1564 y 1567, unos pocos años antes

# **IESUS KRISTEN EBANJELIO SAINDUA S. MATHEUEN ARAURA**

## **KAP. I.**

*1 Jesus Kristen burhaso eta haragiaren arauezko aitzinekoak. 18 Nola hura Espiritu sainduaganik konzebiturik, Maria birjina Iosefen emazteaganik iaio izan den. 21 Zergatik izen eman zaion Jesus. 23 Emmanuel.*

1 Jesus Krist Dabid-en semearen, Abrahamen semearen jenerationeko Liburua.

2 Abrahamek enjendra zezan Isaak. Eta Isaak-ek enjendra zezan Iakob. Eta Iakob-ek enjendra zitzan Iuda eta haren anaieak.

3 Eta Iudak enjendra zitzan Fares eta Zara Thamarganik. Eta Faresek enjendra zezan Esrom. Eta Esromek enjendra zezan Aram.

4 Eta Aramek enjendra zezan Aminadab. Eta Aminadab-ek enjendra zezan Naason. Eta Naasonek enjendra zezan Salmon.

5 Eta Salmonek enjendra zezan Booz Rakabganik. Eta Boozek enjendra zezan Obed Ruthganik. Eta Obed-ek enjendra zezan Iese.

6 Eta Iseki enjendra zezan Dabid regea. Eta Dabid regeak enjendra zezan Salomon uriasen emazte izanaganik.

7 Eta Salomonek enjendra zezan Roboam. Eta Roboamek enjendra zezan Abia. Eta Abiak enjendra zezan Asa.

8 Eta Asak enjendra zezan Iosafat. Eta Iosafatek enjendra zezan Ioram. Eta Ioramek enjendra zezan Ozias.

9 Eta Oziasek enjendra zezan Ioatham. Eta Ioathamek enjendra zezan Akaz. Eta Akazek enjendra zezan Ezekias.

10 Eta Ezekiasek enjendra zezan Manase. Eta Manasek enjendra zezan Amon. Eta Amonek enjendra zezan Iosias.

11 Eta Iosiasek enjendra zezan Iazim. Eta Iazimek engrendra zitzan Iekonias eta haren anaieak, Babilonerat eraman izan ziradenean.

12 Eta Babilonerat eraman izan ziraden ondoan, Iekoniasek enjendra zezan Salathiel. Eta Salathielek enjendra zezan Zorobabel.

13 Eta Zorobabelek enjendra zezan Abiud. Eta Abiud-ek enjendra zezan Eliazim. Eta Eliazimek enjendra zezan Azor.

14 Eta Azorek enjendra zezan Sadok. Eta Sadok-ek enjendra zezan Akim. Eta Akimek enjendra zezan Eliud.

15 Eta Eliud-ek enjendra zezan Eleazar. Eta Eleazarek enjendra zezan Mathan. Eta Mathanek enjendra zezan Iakob.

16 Eta Iakob-ek enjendra zezan Iosef Mariaren senharra, zeinaganik iaio izan baita Jesus, zein erraiten baita Krist.

17 Bada Abrahamganik Dabidgananoko jeneratione guziak, *dirade* hamalaur jeneratione. Eta Dabidganik Babilonerat eraman izan ziraden arteranokoak, hamalaur jeneratione. Eta Babilonerat eraman izan ziradenetik Kristgananokoak, hamalaur jeneratione.

18 Bada Jesus Kristen sortzea hunela izan da. Ezen Maria haren ama Iosefekin fedatua zela, hek elkargana gabe, izorra eriden zedin Espiritu sainduaganik.

19 Orduan bere senhar Iosefek, zeren iusto baitzen eta ezpaitzuen hura difamatu nahi, sekretuki utzi nahi ukantzen zuen.

20 Baino gauza hauk gogoan zerabiltzala, huna, Iaunaren Aingerua ager zekion ametsetarik, zioela, Iosef Dabid-en semea, ezaizela beldur eure emazte Mariaren hartzera: ezen hartan konzebitu dena, Espiritu sainduaganik duk.

21 Eta erdiren duk seme batez eta deithuren duk haren izena Jesus. Ezen hark salbaturen dik bere populua haien bekatuetarik.

22 Bada haur guzia egin izan da, Iaunak  
Profetaz erran ukana zuena konpli ledinzat, zioela,

23 Huna, birjina bat izorra izanen da, eta  
erdiren da seme batez, eta deithuren dute haren  
izena Emmanuel, zein erran nahi baita hanbat nola,  
Iainkoa gurekin.

24 Lotarik iratzarturik bada Iosefek egin zezan  
Aingeruak manatu zeraukan bezala, eta har zezan  
bere emaztea.

25 Eta etzezan hura ezagut, bere lehen semeaz  
erdi zedino: eta deizezan haren izena Iesus.

## Axular

**Pedro de Aguerre y Azpilicueta** ([Urdax](#), [Navarra](#), [1556](#)- Sara, [Francia](#), [1644](#)), conocido como **Axular**, **Pedro de Axular**, **Atxular** (originalmente el nombre se pronuncia *Achular*; la proliferación de pronunciarlo como *Ashular* es consecuencia del cambio en el significado de la letra "X"), fue un escritor [navarro](#) en [euskeria](#), principal representante de la [Escuela de Sara](#) y considerado mejor prosista de la literatura vasca.

Nació en [Urdax](#), en [Navarra](#), en un caserío llamado Axular, de donde recibiría su sobrenombre. Realizó sus estudios de Teología en [Pamplona](#) y los de ciencias humanas, Retórica y Filosofía en [Lérida](#) y [Salamanca](#). En 1596 se ordenó sacerdote en la localidad francesa de [Tarbes](#) y durante cuatro años fue predicador en [San Juan de Luz](#), cuyo obispo, [Bertrand Etxauz](#), lo nombraría rector de [Sare](#) (Sara en euskera).

Un sacerdote de San Juan de Luz llamado Joanes Harostegi denunció a Axular, creyéndose con derecho a la parroquia y alegando que Axular era extranjero. Mas Axular sostuvo que él era navarro, por lo tanto súbdito del rey de Francia y Navarra [Enrique IV](#) y pidió la naturalización. La respuesta del monarca no se hizo esperar, la naturalización era innecesaria pues los navarros eran súbditos suyos. Debido a ello el parlamento de Burdeos dos días después extendió un auto por el cual se mantenía a Axular en su cargo y donde se desdecía de la sentencia del 20 de agosto de [1601](#). Permaneció al frente de dicha parroquia durante el resto de su vida. Allí falleció, en [1644](#).

Vivió en un entorno rico y cambiante: mientras [España](#) entraba en decadencia [Francia](#) vivía una época dorada, pues aun siendo ambos países católicos, este último vivía una gran sed de sabiduría que le llevaría a buscar más allá del cristianismo. Tampoco debe olvidarse que después de la [Paz de los Pirineos](#) Francia vivía una época de tranquilidad y cuando Axular escribió *Gero*, el catolicismo se había afianzado en Francia.

## Obra

*Gero, bi partetan partitua eta berezia* (1643) conocida generalmente como *Gero* ("Después") fue su única obra. La traducción al castellano del título completo dice así: "Después, dividido en dos partes, en la primera se pone de manifiesto cuánto daño provoca la dilación, el dejar los quehaceres después. En la segunda se guía a quien, dejando las dilaciones, quiere dedicarse enseguida a sus obligaciones. En su prologo dirigido al lector indica lo siguiente:

... "Badaquit halaber ecin heda naitequeyela euscarazco minçatce molde guztieta. Ceren anhitz moldez eta differentqui minçatcen baitira euscal herrian, Naffarroa garayan, Naffarroa beherean, Zuberoan, Lappurdin, Bizcayan, Guipuzcoan, Alaba-herrian eta bertce anhitz leccutan". [ Sé asimismo que no puedo extenderme a todas las formas del euskara. Ya que de muchas maneras y diferentemente se habla en Euskal Herria, en la Alta Navarra, la Baja Navarra, Zuberoa, Lapurdi, Bizkaia, Gipuzkoa, Álava y en otros muchos sitios ]

De las Santas Escrituras, de los Doctores de la Iglesia y de los libros de devoción. Recopilado por Axular, párroco de Sara."[\[1\]](#)

Se trata de una obra de [literatura ascética](#), que consta de sesenta capítulos, que ha sido comparada con la [Guía de pecadores de Fray Luis de Granada](#). Su contenido se resumen en la

siguiente *atsotitza* o refrán "*Gero dioenak bego dio*" ("Quien dice luego, dice déjalo"), es decir, prueba que dejar las tareas para luego es el lema del vago, y para ello utiliza los argumentos y frases de muchos autores clásicos, amontonándolos pero relacionándolos con maestría y belleza. Atendiendo al título parece que había dos partes, pero en la actualidad solo se considera una, quizá porque ambas están en una, porque no escribió más o no llegó a publicar la segunda parte.

El libro está dedicado a Bertrand de Etxauz, su maestro y protector, que por entonces era arzobispo de [Tours](#).

Utiliza una retórica propia de los sermones, ya que Axular fue predicador antes que escritor. Su finalidad es cambiar el comportamiento humano, y para ello utiliza una gran gama de recursos retóricos, con tres intenciones fundamentales:

- **Enseñar:** desarrolla el tema con estilo calmado, tranquilo, razonado y de largas explicaciones.
- **Ser agradable:** ejemplifica continuamente con referencias y refranes.
- **Mover al lector:** cuando quiere ser azuzador utiliza un ritmo ligero, un estilo directo (la segunda persona, es decir, el *hika*), proposiciones más breves y una entonación interrogativa y exclamativa. Es decir, utiliza recursos propios del sermón eclesiástico.
- **Originalidad:** las traducciones no son originales obviamente, es por ello por lo que una obra culmen en la literatura tiene que ser original. Es verdad que Gero está lleno de citas de autores clásicos y que es posible que tuviera influencia (por ejemplo en la temática de carácter religioso y adoctrinante, pero no en el tema, la forma ni estilo) de *Guía de pecadores* de [Fray Luis de Granada](#), pero ello no debilita su originalidad, ni mucho menos, en todo caso confirma la formación cultural del autor. Pues el autor mismo admite y acepta que a la hora de escribir su obra tuvo varios libros encima de la mesa, mas su incommensurable trabajo realizado en euskera y de gran calidad asegura su originalidad.
- **Contenido importante:** el tema se encuentra en el centro de las enseñanzas cristinas, pues la vida se ve como un camino hacia Dios y por lo tanto el objetivo del cristiano. Esta obra se centra en los daños que provoca en este camino la vagancia y el dejar las tareas para luego. Tomando refranes y dichos populares para asegurar su imperecibilidad, ataca, por el camino de la contrarreforma, la reforma protestante.
- **Formas bellas:** desde el punto de vista de la literatura utiliza formas bellas, ágiles, flexibles y modo de hablar lleno de vida; pues pasa de una idea a otra con rapidez, pero sin causar confusión. Escribe para gente de nivel medio, con proposiciones encadenadas de forma equilibrada, ganando así la atención del lector. La repetición de palabras, sonidos y estructuras sintácticas paralelas, junto con las aliteraciones y preguntas retóricas aligeran la posible pesadez del tema.
- **Lengua adecuada:** el uso de refranes y la acumulación de sinónimos para que fuera entendible por cualquier vascohablante demuestra que el autor conocía no solo bien el euskera, sino también el mundo vasco. Los juegos de palabras, refranes, golpes de humor, etc., tienen rastros vascos sin duda alguna. Sin duda alguna Axular es un maestro en la prosa retórica tal y como demuestra el tratamiento estilístico que se hace del tema.

## Axular

Leizarragak ireki zion bidea euskal prosari. Bainan historiak norabide berri batzuk markatu zituen, egile kalbinista honen lorpenak gaindituz. XVII. mendea goren aldia izan zen euskal hizkuntzarako. Trentoko Kontzilioak aire berriak ekarri zituen, eta aldaketa politikoek eta arteak zeramaten indarra ez zen oharkabeen pasatuko euskal egileentzat. Sarako eskolan Axular azpimarratu behar da, garai distiratsu honetan oso gora jaso baitzuen literaturaren maila.

### Pedro Daguerre Azpilicueta, *Axular*

Benetako izena [Pedro Daguerre Azpilicueta](#) zuen, eta Urdazubin (Goi Nafarroa) jaio zen 1556an. Axular baserrikoan zen, eta hori zela eta Axular goitizenaz ezagutzen zuten.

Ez dakigu non egin zituen ikasketak, baina [Urdazubiko monasterioan](#) egingo zituela pentsatzen da. Ondoren, Iruñera joan zen, eta han giza-zientziak, erretorika eta filosofia ikasi zituen. Ziur dakiguna da Salamancan Teologiako hiruzpalau urte egin zituela; izan ere, [Koldo Mitxelenaren](#) senitarteko batek 1972an haren titulua aurkitu zuen, eta Axularrek berak *Gero* bere liburuan bi irakasle aipatzen ditu.

1596an apaiztu zen Tarbesen (Frantzia). Ondoren, Sarako erretoreak bere kargua utzi zuenean, Axularri eman zioten, 1600. urtean. Hala ere, Axularrek gogor borrokatu behar izan zuen postu hori lortzeko; dena dela, bera ez zen Frantziakoa, eta Donibane Lohizuneko Harostegitar Joanes izeneko apaiz batek hori leporatu zion, esanez ezin zela Sarako erretorea izan frantziarra izan gabe. Axularrek [Frantziako Enrike IV.aren](#) oniritzia jaso zuen, eta Sarako erretore gisa luze bizi ondoren, 1644an hil zen.

Axularren garaia oso garai aberatsa izan zen. Egoera politikoari dagokionez, Espainia eta Frantzia bereizi behar dira: Espainian beherakada gertatzen ari zen bitartean, Frantzia goraka zihohan. Bi herrialdeak katolikoak ziren, baina Frantziak jakin-nahia piztu zen. Horretaz gain, 1659an Pirinioetako Bakea sinatu zuten, eta beraz, garai baketsua zenez gero, kultura lantzeko garai apropoera ere bazen.

Erlificioari dagokionez, Axularrek *Gero* liburua idatzi zuenean, katolizismoa finkatuta zegoen Frantziaren; beraz, guda garaia amaituta zegoen.

## Axularren obra

Axularrek *Gero* idatzi zuen. Berez, benetako izenburua *Gero: bi partetan partitura eta berezia* da. Horri dagokionez, misterio txiki bat dago, alegia: zergatik jartzen du liburua bi zatitan dagoela partituri? [Emmanuel Intxauspe](#) eta Lafitte-ren ustez, bi zati horiek liburuan bertan daude, Axularrek liburuan esaten duen bezala, baina idatzi zuenean adineko gizona zenez, lan guztia nahiko desordenaturik egin zuen. Villasante eta Haritchelharren ustez, guregana iritsi den *Gero* lehenengo zatia da, eta bigarrena, berriz, ez zuen idazteko denborarik izan edo galdu egin da. Hala izan ala ez izan, argi dago Axular maisu izan zela, eta askok jotzen dutela euskal prosaren maisutzat.

*Gero liburura itzuliz, aipatu behar da mezu argi bat duela: "gizonak luzamendutan aritu gabe, ekintza onak geroko utzi gabe, Jainkoarenengan bildu behar du". Bertan erabiltzen duen hizkera Urdazubiko lapurtera da: erraza eta herrikoia. Liburuaren egiturari dagokionez, hiru zati bereizten dira: "Gomendiozko carta", "Iracurtçaileari" eta "50 kapitulu".*

## **GERO**

BI PARTETAN PARTITUA ETA BEREZIA

LEHENBIZIKOAN EMAITEN DA ADITZERA,

zenbat kalte egiten duen, luzamendutan ibiltzeak, egitekoen  
geroko utzteak.

Bigarrenean kidatzen da, eta aitzinatzen, luzamendua utzirik,  
bere hala, bere egin bideari lothu nahi zaikana.

Eskritura Saindutik, Elizako doktoretarik eta liburu debozinozkoetarik,  
Axular Sarako errororak bildua.

*Ne tardes converti ad Dominum, et  
ne differas de die in diem, Eccles 5.*

## **BORDELEN**

G. Milanges erregeren inprimazaillea baithan

1643

---

## **GOMENDIOZKO KARTA**

**1** Ene iaun BERTRAND DE ECHAUS, Tursko Arzipizpiku, Frantziako lehenbiziko erremusinari: Ordenako aitonen seme, eta erregeren Konseillari famatuari.

## **ZERUKO LORIA**

Neure iaun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik. Heldu nintzen. Ezterautazu iguriki. Ordea eneak dira faltak, enea da hobena.

Gerotik gerora ibili naiz, eta hala dabillanari gerthatzen ohi zaikana egin zait niri ere.

Baiña guztiarekin ere, neure obligazino handiek, ontasun errezipituek, eta bethiere, ene alderakotzat, obrekin batean, erakutsi duzun borondate borondatetsuak, ezterautate utzten, ondotik bedere, zutzaz orhoitzapen egin gabe, liburutto hunen, kanporat atheratzeko, ausartziaren hartzera.

Zeren iduritzen zait ezen oraiño bizi zarela, begien aitzinean zaitudala: eta halatan, hala baitzinitut bezala, mintzatu nahi natzaitzu.

**2** Aita prestu ohorezko bat hiltzen denean, ondotik gelditzen den seme emazurtza, anhitz lekhutan da bere aitaren amoreakgatik, ongi ethorria, eta erraiki errezipitua. Liburutto haur da emazurtza. *Posthumus*. Aita hillez gero sorthua. Baiña zu bezalako aitaren semea, emazurz izanagatik ere, ezin dateke gaizki. Zeren ondotik ere, zure prestutasuna, ohorea eta fama ona, baliatuko baitzaitza.

Eta zure prestutasunaz, ohoreaz, eta aitzineko eta ondoko, fama on famatuaz, nork zer erranen du?

Nor da euskal-herrian aldez edo moldez, zordun eta obligatu etzaitzunik? Behartu eta enplegatu etzaituenik? Eta baliatu etzaitzanik? Zure etxea, egon eta ibili zaren leku guzietan, bethiere izatu da, euskaldunen etxea, pausalekhua eta portua. Guztiekin zuregana laster. Zuri bere arrenkurak, egitekoak, koaitak, eta ondikoak konta. Eta zuk guztiak arraiki eta alegeraki errezipi. Zuhurki konseilla, kida, goberna eta burutan athera.

Zu izan zara, eta izanen zara, euskaldunen ohorea, habea, iabea, sostengua eta kantabres fina, naturala eta egiazkoa.

**3** Zu izan zara Echaus, mendi Pirinioetan, Alduideko hegaletan, bethiere zentinela, eta begiraille bezala, iratzarririk, dagoen iauregi eta gaztelu handi, eder, noble hartako seme. Hango Bizkondeak eta seme guztiak izatu dira bethiere, egundaiñoz gero, erregez enplegatuak, estimatuak, fin eta leial frogatuak. Eta bai egiazko fedearren eta legearen defendatzaille, eta aitzinatzaille buruzagiak ere. Nafarroa behereko parte hetan, bertze anhitz lekhutan bezala, lege katolika saindua, iduriz flakatzera, kordokatzera eta erortzera zihoanean, badaki munduak nola zure aita Iauna, bere etxeaz, onez eta biziaz ere kontu guti eginik, ioan zen Donapalaiora, non baitzen orduan Nafarroako Parlamenta. Eta han ausartzia handi batekin, bere bihotz giristino noblearekin, hasi zen, ezpata biluzia eskuan harturik, oihuz, Matatias bat bere denboran bezala, erraiten zuela: *Omnis qui habet zelum legis, statuens testamentum exeat post me* (2 Mach 2). «Ea giristinoak, giristino izenarekin, izana duzuenak, bertze egiteko guztiak utzirik hurbil zakizkidate, iarraiki zakizkidate eta egiazko legearen eta fedearren mantenatzen eta sostengatzen, lagun zakizkidate». Eta hanbat egin zuen, non bere herria eta ingurunekoak ere,

hetan sartzera zihoa eritasunetik begiratu baitzituen. Eta gero handik hartako herra eta mendekuz bere iauregi ederra erre zioten. Hunelakoak ziren zure aita Iauna eta bai bertze aitzinekoak ere.

**4** Bada eztuzu zuk ere zeure arrazaz ukhatu, etzara zeure leiñutik eta ethorkitik hastandu, berezi eta ez aldaratu. Zeren zuk ere Baionako Ipizpiku zinenean, eta bisitan zenenbiltzanean ikhusirik ezen, elizatik kanpoan zebiltzan iende batzuek, nahi zituztela, bere azken finean, gorputza elizan sarthu eta ehortzi; zeure bisita hautsirik, Nafarroako hirur estatuak bildurik, ioan zinen Gorthera: eta han anhitz trabaillu iraganik, kontrakarra izanik, ekharri zenduen, gero ere, behar zen erremedioa, eta handik harat, halako desordenuen debekatzeko ordenantza eta manamendua. Beraz etzara zu ere, zeure aitzinekoen giristinotasunaren gibelatzaile izatu.

Bada ez eta ohorearen iraungitzaille ere. Aitzitik badirudi ezen zuk xedea aitzinatu duzula, marra iragan duzula, eta Echausko etxearen arropa gorriaz bestitzeko bidetan izan zarela. Zeren ezta eztakienik, ezen erregek hartarakotzat hautatu eta izendatu zinituela. Eta kolpea huts egin bada ere, eztela zure faltaz edo zu hartako ez gai izanez, huts egin, zeren utzirik alde batetara zure merezimendu handiak: eta elizari, erregeri eta komun guztiari, anhitz okhasinotan egin derautzetzun zerbitzuak eta endrezuak, naturalezak berak ere anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotatu, hornitu eta konplitu baitzaitu. Adimendu eder bat, memorio handi bat, eta borondate onera, ohorera, eta prestutasunera erori bat, isuri bat, eta eman bat eman baiteratzu.

**5** Baiña zertako sartzen naiz ni itsas hondar gabe hunetan? Ezin athera naitekeien oihanean? Zure laudorioen aiphamenean? Berak dira bere buruz asko gora mintzo: berak dira bere baithan asko klar eta ozen. Utz ditzadan beraz nik hek, hutsik eztagidan. Eta iragaiten naizela aitzina, derradan hutsik egin gabe. Zer ere eskiribatuko baita euskaraz, hura guztia, euskaldunen buruzagi bezala, zuri dagotzula, zuri zor zaitzula, eta arrazoiñez orai ere zuri presentatu behar zaitzula. Eta guztiz ere zure zerbitzari ttipi hunen trabaillu aphur haur, gerotik gerora egitekoen luzatzeak, zenbat kalte dakharkeien, zuk hain ongi dakizun pontu haur, nori egonen zaika zuri ezpadagotzu? Nork kidatuko, nork ostatuko du, zuk ezpadezazu?

Zure gerizan doha: zure itzalaren azpian benturatzen da, errezibi ezazu bada, defendea ezazu, alde zakitza, egiozu begitarte. Ediren bedi liburutto hunetan, Echaus eta Echausen omena eta izena. Zeren halatan eta harekin batean, ibiliko den leku guztietan, burua gora ekharriko du, burupe izanen du eta nehoren guti beldurrik, iendartera, bere begitartea, ausartki atherako du.

Bai ordea ioan zara: lekhuz aldatu zara: hemengo aldia egin duzu.

Egia da, hala da. Eta aldez damu dut, eta aldez atsegin. Damu, zeren ezpaitzaika nehorni ere handik, niri bezanbat kalte ethorri.

Atsegin. Zeren nola ezpaikara bi mendetako eta zuk zeurea, hain ongi, hain ohorezki eta dohatsuki iragan baitazu, esperantza baitut zeruko lorian, Iainkoaren konpaiñian, kredit handiarekin zaudela: eta hortik helduko zatzaizkidala, eskua emanen derautazula: eta arranoak, airean dohanean, bere umetara bezala, zuk ere enegana begia edukiko duzula. Eta gero nik ere (hemengo aldia egin hurran baitut), Iainkoaren garaziarekin eta zure arartekotasunarekin batean, zure zorthe ona erdietsiko dudala: eta orduan guztiez eskerrak errendatuko derauzkitzudala. Iainkoak hala nahi duela.

Zure zerbitzari ttipiena, eta obligatuena.

P. DE AXULAR

---

## APPROBATIONES

Visis per nos Vicarium Generalem Illustrissimi ac Reverendissimi D. D. Francisci Fouquet Episcopi Bayonensis, attestationibus de mandato eiusdem Domini factis et supra insertis, dictum de non procrastinanda poenitentia librum imprimi permisimus. Datum Bayonae anno Domini 1642, die secunda Decembris.

PERRIQUET

Vicar. General.

Hunc librum de non procrastinanda poenitentia authore Domino Petro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper rectore de Sara, mandato Illustrissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis accurate evolvi, et in eo nihil adversum fidel pietatique, sed recta omnia ornata, et ad bonos mores multum conductentia, iudicasse ego infra scriptus testor. Datum apud Sanctum Ioannem de Lus die quarto decembris anno Domini millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo.

SALVATUS DE DISSANECHÉ

Ego infra scriptus iussu Illustrissimi ac Reverendissimi Domini Domini mei Episcopi Bayonensis attente legi librum de poenitentia non differenda cantabrico idiomate a Domino Petro de Axular meritissimo olim rectore de Sara compositum, in quo omnia orthodoxae fidei et bonis moribus consona reperi, atque uberem authoris facundiam magna cum erudictione ac singulari pietate conjunctam non semel admiratus sum. Ideo in lucem perutiliter prodire posse censeo ac iudico.

Datum apud Sanctum Ioannem de Luz die 25 Decembbris millesimo sexcentesimo quadragesimo secundo.

PETRUS DURTHUBIE

Doctor Theologus

---

## IRAKURTZAILLEARI

**6** Egun batez, konpaiñia on batean, euskaldunik baizen etzen lekhuan nengoela, ekharri zuen solhasak, izan zen perpausa, etzuela, deusek ere hanbat kalte egiten arimako, eta ez gorputzeko ere, nola egitekoen geroko utzteak, egunetik egunera, biharretik biharrera luzatzeak. Eta on zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea: eta hartan, gero dioenak bego dioela erakustea. Konpaiñia berean galdegin zen berehala, ea nori emanen zeikan liburuaren egiteko kargua. Eta bertze guztien artetik, hasi zeizkidan niri neroni aditzera emaiten, lehenbizian kheinuz eta aieruz, eta gero azkenean, klarki eta agerriz, nik behar nituela, egiteko hartan eskuak sarthu. Ordea nola ezpainintzen neure buruaz fida, desenkusatu nintzen ahal bezanbat. Baiña alferrik, zeren hain zinez eta batetan lothu zeizkidan, non ezetz erraiteko bide guztiak hertsibaitzerauzkidaten. Eta hala deliberatu nuen, buru-eragotzkarri bezala, liburutto baten, bi partetan partiturik, gero hunen gaiñean egitera.

Eta nahi nituzkeien bi parteak elkarrekin, eta batetan athera. Baiña ikuhsirik zein gauza guti edireiten den euskaraz eskiribaturik, gogan behartu naiz eta beldurtu, etziren bideak asko segur eta garbi, baden bitartean zenbait trabu edo behaztopaharri. Eta halatan hartu dut gogo, lehenbiziko parte hunen, lehenik benturatzeko, eta berri iakitera bezala aitzinerat igortzeko. Hunek zer iragaiten den, zer begitarte izaiten duen, eta nor nola mintzo den, abisu eman diazadan. Gero abisu haren arauaz ethorkizunerat gobernatzeko: eta bigarren partearen kanporat atheratzeko, edo barrenean gelditzeko eta estaltzeko.

**7** Badakit anhitzek miretsiko duela eta ediren arrotz eta estraiño, ni lan huni lotzea. Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezalakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, hunelako materiatan, hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu. Baitirudi ezen asko behar lizatekeiela arrazoin haur ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere. Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportzatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarrean bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla,

eta bat bederak disimulatzeko, ez ikhusi iduri egiteko, eta are desenkusatzeko dituela.

**8** Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztieta. Zeren anhitz moldez eta differentki minzatzen baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa beherean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alabaherran, eta bertze anhitz lekhutan. Batak erraiten du *behatzea*, eta bertzeak *so egitea*. Batak *haserretzea* eta bertzeak *samurtzea*. Batak *ilkitzea*, bertzeak *ialgitea*. Batak *athea*, bertzeak *bortha*. Batak *erraitea*, bertzeak *esatea*. Batak *irakurtzea*, bertzeak *leitzea*. Batak *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*. Batak *hauzoa*, bertzeak *barridea*. Batak *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean bat bederak bere gisara, anzura eta moldera. Eztitutzte euskaldun guztiekin legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baititutzte different.

**9** Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere differentzia. Batak eskiribatzen du *chehero*, bertzeak *gehero*. Batak *chedea*, bertzeak *gedea*. Batak *ichilik*, bertzeak *igilik*. Batak *lachoa*, bertzeak *lajoa*. Batak *choil*, bertzeak *joil*. Batak *kecho*, bertzeak *kejo*. Batak *chuchen*, bertzeak *jugen*. Eta hunela bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork bere herriko edo erresumako arauaz differentki eskiribatzen baititutzte.

Ordea zeren ezpaitira hamar bat hitz edo baizen, hunela differentki, eta bi aldetara eskiribatzen direnak: halatan nik ere zenbait aldiz eskiribatu koitut alde batera liburuan barrena, eta bertze aldera liburuaren bazterrean, *in margine* : bat bederak zerbait kontentamendu duen amoreakgatik.

Finean eskiribatze hunen gaiñean, diot ezen, nola latinak bi *i* eta bi *v* egiten baititu bat eta hartzen batentzat: *adjicio*, *conjicio*, *vultus*, *vulnus*. Eta espaiñolak ere bi *l* egiten baititu bat, *llamo*, *lloro*: hala euskarak ere bi *t* egiten dituela bat, *ttipia*, *ttipittoa*, *gizonttoa*, *haurttoa*. Zeren eskiribatzera *txipia*, *txipitxoa*, *gizontxoa*, *haurtxoa* ezta ongi heldu, euskaraz ongi minzatzen direnen artean.

**10** Baiña zeren komunzki, hala eskiribatzea, nola minzatzea, nori berea iduritzen baitzaika hoberenik eta ederrenik: eta ene haur ezpaita zurea bezala, ez, othoi, hargatik arbuia eta ez gaitz erran. Hunetzaz kontent ezpazara, egizu zuk zeure moldera, eta zure herrian usatzen eta segitzen den bezala. Zeren ez naiz ni hargatik bekhaiztuko, eta ez mutturturik gaitzez iarriko. Aitzitik haur da nik nahi nukeien gauzetalik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsi, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela.

Orai badirudi euskarak ahalke dela, arrotz dela, eztela iendartean ausart, entregu, bithore eta ez trebe. Zeren are bere herrikoen artean ere, ezpaitakite batzuek, nola eskiriba, eta ez nola irakur.

Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, franceses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada, euskaldunek berèk dute falta eta ez euskarak.

**11** Eztut liburutto haur letratu handientzat egiten. Eta ez xoil, deus eztakitenentzat ere.

Ez eta, eztitut bethiere, eskritura saindua eta doktoren erranak ere, hitzez hitz euskarara bihurtzen. Zeren euskara eta bertze hitzkuntzak different baitira. Ordea ezta ez handik segitzen gaixtoago dela euskara. Aitzitik badirudi ezen bertze hitzkuntza eta lengoaia komun guztiak bata bertzearekin nahasiak direla. Baiña euskara bere lehenbiziko hastean eta garbitasunean dagoela.

Baiña euskara eta euskararen minzatzeko eta eskiribatzeko moldeak eta differentziak utzirik: zeren hek azala eta lorea bezala baitira: har ezazu liburutto hunen fruitua, barreneko mamia: haur dasta ezazu, haur eskuzta ezazu, irakurtzen duzula, ez lehiaz, ez gaingiroki eta ez arbuiatzeko kontuan ere. Baiña intenzione on batekin, zeurea, zeurk egina baitzendu bezala, eta baldin halatan eta orduan, bat ere gozorik edo zaphorerik edireiten badiozu, zeren hura guztia Iainkoaganik heldu baitateke, eta ez eneganik faltarik baizen, hari eskerrak errenda iatzotzu, eta nitzaz ere othoitz egiteaz, arren othoi, orhoit zaitezi.

VALE

---

## **GERO**

**HASTEN DA GEROTIK GERORA DABILLANAZ,  
EGITEN DEN LIBURUAREN LEHEN PARTEA**

**NOLA BERTZEAK BERTZE DIRELA,  
ALFERKERIATIK**

**IHES EGITEAGATIK ERE BEHAR DEN**

**TRABAILLATU**

**LEHENBIZIKO KAPITULUA**

**12** Gure Iaungoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imajinara eta idurira, bat ere behkaturik eta behkaturen kutsurik ere

gabe, anhitz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturik, egin zuenean, ibeni zuen berehala, lurak zuen parterik, eta aurkientzarik hoberenean, lurreko parabisuan, leku plazerez bethean. Eta manatu zuen lant zezala, labora zezala, eta begira ongi parabisu hura. *Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur, et custodiret illum* (Gen. 2).

Ordea nola lur-lantzea, aphantzea, laboratzea, eta begiratzeko beharrean eta premian ere iartzea, bekhatutik sortzen eta heldu diren xertoak, landareak, fruituak, eta ondoreak baitira, eta oraino orduan ezpaitzen bekhaturik, eta ez bekhaturen aierurik, omenik eta ez aiphamenik ere, badirudi ezen etzela halaber, oraiño orduan, parabisu haren lantzeko, eta begiratzeko premiarik. Zertako, beraz, eman zioen orduan, Iainkoak gizonari, manamendu hura? Ihardesten du San Tomasek, erraiten duela: *Nec tamen, illa operatio esset laboriosa sicut post peccatum, sed fuisse jucunda, propter experimentum virtutis naturae. Custodia etiam illa non fuisse contra invasorem, sed esset ad hoc, quod homo sibi paradisum custodiret ne ipsum amitteret peccando* (S. Thom. 1. p. qu 102 art. 3). Etzen ez orduko trabaillatze hura, penagarri izanen, orai bekhatu eginez gero bezala. Baiña hura izanen zen atsegin hartze bat, eta bere plazerera, eta aisiara zegoela, bere indarraren eta anzearen frogatze bat. Eta begiratzea ere, ez etsaietarik, baiña bereganik, eta beretzat bekhatzuz galtzetik begiratzea, izanen zen. Hunela dio San Tomasek.

**13** Baiña San Krisostomok emaiten du bertze arrazoin bat, ni narraikan pontuari hobeki hurbiltzen zaikana, erraiten duela: *Propterea praecepit Deus ut operaretur illun, si enim laboris omnis fuisse expers, ex nimio otio, in ignaviam fuisse prolapsus* (Chrys. hom. 14 in cap. 2 Gen. tom. 3). Egia da, etzen oraiño orduan, lur-parabisu hartan egitekorik, etzen trabaillatzeko premiarik. Ordea halarik ere, etzuen nahi Iainkoak, han zegoena, zegoen geldirik: ez trabaillatzetik alfertzera, eta nagitzera ethor etzedin, eta zein gauza gaixtoa zen, eta den alferkeria, aditzera emaiteagatik.

Kontatzen du Kasianok, Paulo abade zahar hura, palma adar batzuk harturik, hetzaz, zare, saski eta otharre egiten haritzen zela eta gero azkenean, egin ondoan, astearen buruan, guztiak erratzen eta desegiten zituela (Casian. lib. 18 cap. 14). Zeren bataz, nola herriatarik urrun baitzegoen, gehiago baitzkarkeien garraioaren gastuak, obraren balioak baiño: eta berriz bertzea, zeren trabaillu hura guztia orazinotan eta othoitzetan unhatu ondoan, alferkeriatik ihes egiteagatik, hartzen baitzuen, eta ez ondoko irabaziagatik.

Gure Iaungoikoak eman zituen lege zaharrean seietan ehun eta gehiago manamendu eta zirimonia suerte, eta hekin batean hanbat egiteko, non erraiten baitu Iondone Petrik, ez berak, eta ez haren aitzinekoek ere, ezin bururik egin zutela, eta ez iasan hain karga handia. *Quod neque patres nostri, neque nos portare potuimus.* (Act. 15). Eta nahi baduzue iakin, ea zergatik kargatu zituen Iainkoak hanbat manamenduz, ihardesten du doktor batek: *Ut per operationes variorum sacrificiorum otiositas tolleretur, quae multis malis initium tribuit et fomentum*

(Abulen. in praefat. in Levit). Kargatu zituen hanbat manamenduz, sakrifizioz eta zrimonia suertez, hekin batean khen zedin, hanbat kalteren eta damuren haste eta pitzgarri den alfertasuna.

**14** Nola gure Iaungoikoak beztitu baitzituen lurreko animaliak, aireko hegaztinak, itsasoko arraiñak, eta oihaneko zuhaitzak ere, bere beztimenda suerte batzuez. Animaliak larruz eta illez: hegaztinak lumaz: arraiñak ezkataz: eta zuhaitzak azalez.

Eta nola zuhaitzak bere dauden lekhuetarik higitu gabe, eta trabaillatu ere gabe, bere azpiko luraren gozoa eta gizentasuna, beregan, bere erroez thiratuz

eta edoskiz, hazten, handitzen eta mantenatzen baitira: animaliek ere bere bazkak eta iatekoak, berehala, eho gabe, erre eta egosi gabe, iaten baitituzte: eta bai bere etxeak eta etzauntzak ere, non nahi den, arratsten eta ilhuntzen zaien lekhuan hartzen: eta gehienak, berehala bere ameen ondotik baitoazi; zein baitira abantail handiak. Hala Iainkoak nahi izan balu, eman zerauzkaion gizonari ere abantail suerte hauk guztiok, eta gehiago ere. Beztitu zukeien, etxeden egin zukeien. Ordea etzuen hala ibeni nahi izatu. Eta zergatik ez? Alfer etzegoen amoreakgatik. Eta San Anbrosiok dioen bezala, errezipitu duen adimendua enplega dezangatik. *Soli autem homini, ut rationale quod accepit exerceat, vitae cursus in labore praescribitur* (Ambros. in praefat. in Levit). Zeren baldin orai, gauza guztiak hain nekez eta hanbat gostarik, erdiesten ditugularik, hain nagi eta alfer bagara; zer geneidike, nahi dugun guztia, nahi bezala eskuen artean bagendu? Deus falta ezpalitzaiku? Erran genezake Ebanjelioko aberats hark bezala: *Anima, habes multa bona, posita in annos plurimos, requiesce, comedere, bibe, epulare* (Lc. 12). Dezagun ian eta edan; dezagun pauza eta atsegin har; zeren berdin eztugu deusen eskasik, eztugu egun hautan eskean ibiltzeko perilik.